

TXOSTENA IXOSTENA

36

BERDINTASUNAREN BALIOAK DUEN

ERAGINA EUSKADIKO

BATXILERGOKO 2. URTEKO

IKASLEEK GOI-MAILAKO

IKASKETAK HAUTATZERAKOAN

Laburpen exekutiboa



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN BALIOAREN ERAGINA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BATXILERGOKO 2. MAILAKO IKASLEEK GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA IBILBIDEA HAUTATZERAKOAN

Marce Masa. Adimen Investigación

Bilbo, 2016ko maiatzaren 23a

Aurkezpena eta helburuak

Gure gizartearen diskurtsoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna onartuta dagoela badirudi ere, euskal herritarren eguneroko praktikan ere zenbateraino den balio «finkatua» neurtzen saiatuko den lan-ildo bat interesatzen zaio Emakunderi.

Azterlan hau Emakundek gure errealitate soziala ezagutzeko egiten duen beste saiakera bat da, botere publikoek edozein esku-hartze egin aurretik ezinbestean bete beharreko premisa bat.

Hala, azterlan honen helburu nagusia da bi kontu hauek jakitea, Euskadiko Batxilergoko 2. mailako ikasleek goi-mailako prestakuntza-ibilbidea aukeratzeko erabakia hartzeari dagokionez: nola eragiten duten balioek edo balioak nola sartzen diren jokoan, eta balioetan oinarritutako hautaketa horretan generoaren araberrako alde aipagarriarik baden ala ez.

Azterlanaren *hipotesi nagusia* da *desoreka* bat dagoela “diskurtsoaren” eta belaunaldien, generoen eta talde sozialen eguneroko «praktikaren» artean; diskurtsoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bertute publiko bihurtu baita gure ingurunean, hau da, balio sozialki zuzena da; praktikan, berriz, berdintasunaren balioa zalantzarriagoa izan daiteke.

Diskurtsoaren eta praktikaren arteko desoreka horri zenbait modutan deitzen zaio: “*berdintasunaren irudipena*” (Valcárcel; 2008:200), “*berdintasunaren erretorika*” (EMAKUNDE; 2012:191), “*demokrazia partziala*” edota “*itun zinikoa*” (Simón Rodríguez; 2010:94).

Berdintasunaren irudipen edo erretorika hori eraikitzen laguntzen duten arrazoiak mota askotakoak dira, baina lotura estua dute haien artean. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna agenda publikoan sartzeko ahaleginaren ondorioa izan daiteke horietako bat, nahiz eta ondorio hori ez den nahita bilatzen. Arau bidezko normalizazioa egoteak normalizazio soziala lortuta dagoelako pertzepzioa sortzen du, baina errealitate beraren bi plano horiek logika desberdinak dituzte.

Metodologiaren diseinua

Hasieratik, Emakundek argi zeukan adierazleak sortzen jarraitu behar zela, egungo egoera zein den jakin ahal izateko, *Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren* «Balioak aldatzea» programan zehaztutako helburuak lortzeko bidean. Azterlan honen erronka handiena izan da, logikoa denez, balioak neurtzeko gauza den ikuspegi teoriko-metodologiko bat eratzea.

Bi dira gure ikuspegiaren zutabeak. Alde batetik, Goffman eta Borudieu abiapuntu hartuta, praktika sozialen zehar eta haietatik abiatuta soilik deduzitu daitezke praktika horien balio implizituak. Eta, beste alde batetik, egoera zehatz horiek esperimendatu ari diren pertsonen edo orain dela gutxi esperimendatu dutenen soilik parte hartu ahalko dute aktiboki azterlan aplikatuan. Horrela jokatzuz, “izan beharko litzatekeenari eta ez denari buruzko iritziak” emateko arriskuak saihesten dira.

Txosten honek 2015eko martxoa eta apirila bitartean egin zen azterlan baten emaitzak aurkezten ditu. Horren bidez, ikerketa honen planteamendu teoriko-metodologikoa aplikatzen dugu, hau da: “erabaki hartze” bat praktikara eramatea, zeina gutxienez funtsezko “mugarria” baita belaunaldi honen ibilbidean (igarotze-erritua). Gainera, erabaki hori hartzen ari ziren “unean bertan” jaso dugu hau da, ikasleek sei hilabete beranduago hasiko zituzten ibilbideetarako aurretiko inskripzioak egin behar zituztenean.

Azterlanean, guztira, Batxilergoko bigarren mailako 1.300 ikasleek, 105 ikaslek eta 140 gurasok parte hartu dute, 32 ikastetxetan banatuta. Ikusten denez, azterlanaren oso alderdi garrantzitsua izan da osoko ikuspegi eman zaiola goi-mailako prestakuntza-ibilbideari buruzko erabakia hartzeko «unean» jokoan zeuden eragile guztiak detektatzeko. Perspektiba integral bikoitza sartu dugu: bai genero-aldagaia, bai eta belaunaldi arteko aldagaia ere.

Nola ikusten dute beren burua? Erretratu axiologikoa

Azterlanean parte hartu duten ikasleen batez besteko adina 17,36 urtekoa da. Horrenbestez, gehienak 1998an jaiotako belaunaldikoak dira, eta, horren ondorioz, XXI. mende honetako testuinguruan sozializatu dira.

Oro har, lehen begiratuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. mailako ikasleen balioen hierarkia ez da oso desberdina nesken eta mutilen artean. Neskentzat zein mutilentzat garrantzitsuena da emakumeen aurkako indarkeria desagertzea. Horren ondoren, gai hauek ere garrantzizkotzat jotzen dituzte (ordena honi jarraikiz): norberaren erabakiak hartzeko autonomia indibiduala, justiziaren balioa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, erantzukizuna, elkartasuna, aniztasun kulturekiko eta sexualarekiko errespetua, idealismoa eta pragmatismoa.

Belaunaldi horretako gehienentzat, erabakiak hartzerakoan **norberaren autonomia** izatea genero-dimentsiotik harago doa; eta, horregatik, autonomia hori izatea eskubidetzat jotzen dute, eta, nolabait esanda, pertsonari berari datxekion balioztat.

Azpimarratzekoa da, bestalde, Batxilergoko 2. mailako neskek emaitza altuagoak ematen dituztela beren ikasgelako eta belaunaldiko kide mutilek baino, erabakiak hartzerakoan norberaren autonomiaz duten pertzepzioari dagokionez, planteatutako esparru guztietan, diruaren kudeaketan izan ezik. Ildo horretan, bai neskek, bai mutilek argi daukate independentzia ekonomikoa dela beren autonomia indibiduala gauzatzeko bidea.

Batzilergoko 2. mailako ikasle-kolektibo horrek –neskak zein mutil– uste du beren erabakiak hartzeko orduan autonomia maila handiagoko pertsonak direla beren aurreko belaunaldiekin alderatuta, gurasoenarekin zein amona-aitonekin. Eta are esanguratsuagoa da, izan ere, neskek direla eguneroko erabakiak hartzerakoan norberaren autonomiaren pertzepzio maila handiena erakusten dutenak, haien generoko erreferentziarik, kasu honetan, amekiko eta amonekiko.

Nola ikusten dute gaurko egoera, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez?

Batzilergoko 2. mailako lau ikasleetatik batek uste du gizartean oro har ez dela lortu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna. Azpimarratu behar da genero-desberdintasunak batez ere beste belaunaldi batzuei eragiten diela; izan ere, haienean, berdintasuna lortzetik gutxiago falta da (bietatik ia batek iritzi hori dauka).

Era berean, azpimarratu behar da desberdintasunaren pertzepzioa nabarmenagoa dela nesken kasuan; haien ikaskide mutilek ildo horretan aurrerapen gehiago egon direla antzematen baitute.

Ildo horretan, Batxilergoko 2. mailako ikasle nesken eta mutilen hiru laurden baino gehixeagok uste du gaur egun, oro har, emakumeak diskriminatuta daudela gure gizartean.

Dena den, gehiengo osatzen duen segmentu batek (ia hamarretatik seik) uste du diskriminazio-egoerak leundu egin direla, hau da, “aurrera” egin dela. Hamarretatik bik uste du, aitzitik, desberdintasun-egoerek bere horretan jarraitzen dutela, hau da, gai horretan ez dela denboran zehar inolako aurrerapenik edo aldaketarik izan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: neskek, bizipenetik; mutilak, urrutiagotik

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna garrantzi handiko balioztat dauka aztertutako nesken eta mutilen belaunaldiak. Nolabait esanda, jakintzat ematen den balio bat da, haien sozializazio-testuinguruaren parte izan den neurrian.

Dena den, belaunaldi horretan, emakumeen eta gizonen berdintasun-balioak bizipen maila-desberdina hartzen du genero baten eta bestearen pertzepzioaren arabera. Batxilergoko 2. mailako neskontzat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak erabakiak hartzeko orduan autonomia izateak duen garrantzi-maila bera du, tandem bereizte bezala. Neskak dira ohartzen direnak eta «bizi» dutenak emakumeen eta gizonen berdintasuna ez dela diskurtso batean gauzatzen den balio bat: ondorio argiak eta zehatzak ditu haien bizimoduan, oraindikoa eta etorkizunekoan, emakumeak diren heinean.

Haien ikaskide mutilentzat, aldiz, posible da norberaren autonomia eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bereiztea, ez baitituzte tandem modura hautematen, bi ibilgailu independente bailiran baizik: haientzat, lehen balioak –autonomiak– norberari eragiten dio, eta bigarrenak –emakumeen eta gizonen berdintasuna– urrutixeago dagoen zerbaiti, iritzia emateko moduko zerbait bezala.

Hona gertakari horren bi adierazle:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko kontzientziazio maila, batez ere, belaunaldi honetako nesketan sostengatzen da. Eta nesken ikasgela eta belaunaldi bereko mutilek ere pentsatzen dute neskak direla protagonistak berdintasunaren arloko kontzientziazio-mailan.
- Batxilergoko 2. mailako hamar nesketatik zortzi kezkatuta daude une hauetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dela-eta. Mutilen kasuan, hamarretatik sei baino apurtxo bat gehiago.

Lan-esparrua: zain dituzten desberdintasunen kronika aurreratua

Neskek zein mutilek botere orekatuko egoera islatzen dute etxeko eta familiako harremanen esparruan; aldiz, botere «simetria» hori ez da gertatzen lan-esparruan.

Lan-esparrua idetifikatu dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko oztopo nagusietako bat bezala Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. mailako ikasleek (neska zein mutil izan). Lan-esparruan berdintasunak dituen oztopoak antzematean, garrantzi handiko bi gertakari izaten dira, aldi berean:

- Lehena “aurreikusitako” pertzepzio bat da; izan ere, gure testuinguruan, neskek zein mutilek, 17 urte dituztela, lanekoak ez diren esparruetan izaten dituzte praktika sozialak (hezkuntza-arlokoetan, ludikoetan, etxeko eta familiartetakoetan...).
- Bigarrena da oztopo horien pertzepzioan alde nabarmena aurkitu dugula nesken eta mutilen artean (agian, horixe da garrantzitsuena). Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. mailako hamar neska ikasleen zazpiren pertzepzioa da emakumeek ez dituztela gizonen laneko baldintza berdinarik; haien gelako eta belaunaldiko mutil kideen bietatik batek ere ez du pertzepzio hori.

Logikoa dirudi, horregatik, mutilek ez bezala, Batxilergoko 2. mailako neskek ez dutela «hartarainoko» federik lan-merkatuan sartzeko giltza moduan hezkuntzako tituluek izan dezaketen eraginaz.

Zein goi-mailako prestakuntza-ibilbide hautatuko dute?

Belaunaldi horretarako norberaren autonomiaren (edo ahalduntzearen) balioak hartzen duen garrantziaren ildotik, oso nabarmena da goi-mailako prestakuntza-ibilbidea erabakitzeke “norberaren autonomiak” hartzen duen protagonismoa (10etik, 8,27). Irizpide horren ondoren, eta dezente atzerago, hautatutako titulazioaren laneko proiektzioa dago (6,69), bai eta lortutako batez besteko nota eta nahi den titulazioak eskatzen duena uztartzeko irizpide akademiko-administratiboa ere (5,87).

Norberaren gustua da goi-mailako prestakuntza-ibilbidea erabakitzeke unean eragin handiena duen faktorea («gustatzen zaidalako/bokazioz»), 8,5eko batez bestekoarekin Batxilergoko 2. mailako ikasle guztientzat.

Baldintza *sine qua non* horren atzean, eragina izaten duten bigarren faktore-talde bat agertzen da, laneko aukeretan eta eragin ekonomikoan eta soldatan duen eraginean fokua jartzen dutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014/15 ikasturteko Batxilergoko 2. urteko ikasle guztien hamarretik ia zortzi unibertsitatera begira egotea da, dudarik gabe, azpimarragarriena. Unibertsitate-ibilbiderako joera hori nabarmenagoa da nesken artean (%84,3), mutilen artean baino (%72,4).

Azterlanak egiaztatzen duenez, hezkuntza-hautaketan genero-aldagaiak duen pisua handitzen da prestakuntza-ibilbidearen maila handitu ahala: hamarretatik zazpik aipatzen du Batxilergo modalitate bat egiteko orduan neska edo mutila izateak ez daukala garrantzirik, portzentaje hori hamarretatik sei baino gutxiago da, berriz, goi-mailako titulazio baten kasuan.

Azterlanak hau besterik ez du egiaztatu: bere horretan jarraitzen du generoaren arabera banaketa, “emakumea-irakaslea-medikua”, “gizona-ingeniaria-teknikaria” ereduaren arabera. Eta argudiatzen dute pertsona guztiak gustuko duten titulazioa aukeratzeko libreak direla (autonomoak), duten “bokazioa”ren arabera.

Ildo horretan, hamarretatik zortzi baino gehiagok uste du emakumeek gizonen aukera berdina dituztela titulazio bat hautatzeko orduan. Uste dute, horrenbestez, aukera-berdintasunak izanda hartzen den erabaki bat dela.

Azterlanaren beste alde garrantzitsuetariko bat izan da egiaztatzea nolako afinitate-maila handia dagoen gure testuinguruan, belaunaldi artean goi-mailako prestakuntza-ibilbidea erabakitzeke orduan. Ia %75ek babesten dute alabak edo semeak hartutako erabakia.

Baina, kontuz, bideratze sotilago bat ere gertatzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. mailako ikasleen –neska zein mutil izan– gurasoek beren alabek eta semeek goi-mailako titulazioa «burujabetasunez» hautatzea ahalbidetzen edota errazten dute, hori bai, ahal izatera, unibertsitateko ibilbideari lehentasuna emanaz. Eta irizpide hori sendotasun handiagoz orientatuta dago nesken kasuan. Gurasoei erlatiboki gutxiago axola zaie mutilek Lanbide Heziketako goi-mailako titulazio bat ikastea nahiago izatea unibertsitateko titulu bat baino.

Nola egongo dira goi-mailako prestakuntza-ibilbidea amaitu ondoren?

Galdetegian sortutako lanbide-sortatik haratago, lehen aipatutako prestakuntza-ibilbideen eta desiratutako lanbidearen arteko afinitate nabarmenak egoten dira. Azken finean, ikasi duten arloan lan egitea espero dute.

Zentzu horretan, belaunaldi honetan guztiz finkatuta dago, bai beren balioetan eta bai etorkizuneko balizko portaera praktikoetan ere, seme-alabak izateak ez duela funtsezko protagonismorik etxe esparruko bizikidetzaren eremuan. Eta horixe da gure testuinguruan gertatutako lehen mailako aldaketa sozialaren prozesu bat.

Nola ikusten dituzte gurasoek eta irakasleek?

“Autoerreturatutik” haratago joan behar dugunez, argazkia osatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. mailako ikasleak gehien tratatzen duten eta hobeto ezagutzen duten bi eragile sozialen iritzia jasoz.

Azpitarragarriena da gurasoek beren alabek eta semeek pentsatzen dutenari buruzko pertzepzioaren «hurbiltasuna», eta, aldiz, irakasleen kolektiboaren «urruntasuna».

Amen eta aiten emaitzak oso hurbil daude 17 urteko alaben eta semeen iritzietatik, eta horrek erakusten du, besteak beste, gure testuinguruan oso maila esanguratsua dagoela «belaunaldi arteko» eta «familia barruko konbergentziari dagokienez».

Azpitarratzekoa da ezen Batxilergoko 2. mailan alabak eta semeak dituzten gurasoen ia lautik hiruk baieztatzen dutela, dudarik gabe, haien seme-alabek burujabetasun indibidual handiagoa dutela orain, beraiek (gurasoak) beren alabek eta semeek orain duten adina zutenean zutena baino (17 urte). Gehiengoaren irudi horrek bide ematen du hau berresteko: gure testuinguruan oso aldaketa handia gertatu da, bai gizartean eta bai belaunaldien artean, ahalduntze indibidualaren mailan.

Begi-bistakoa da norberaren autonomiaren balioa belaunaldiz belaunaldi transmititu dela norberaren identitateak egituratzeko balio nagusi gisa. Erabakiak hartzeko orduan autonomia izatearen balioak, beraz, zimendu sendoak ditu.

Aitzitik, irakasleen kolektiboak “gutxitu” egiten du, hein handi batean, beren ikasleek norberaren autonomiari eta berdintasunari buruz duten autopertzepzioaren parte handi bat. Irakasleen kolektibo horren argazkian, azken batean, generoen arteko aldeak nabarmenduago daude belaunaldi honetan, ikasleek beraiek eta haien gurasoek hautematen dituztenak baino. Eta argi dutena da Batxilergoko 2. maila ikasten ari diren neskek kontzientziatuago daudela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian mutilak baino; mutilengan berdintasunean ainguratutako praktika gehiago ikusten baitute.

Batxilergoko ikasleen belaunaldia (neskak eta mutilak): joerak zortzi urte beranduago. Belaunaldien arteko alderaketa-adierazleak

Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. mailako ikasleen ibilbide biografiko “normalizatua” da unibertsitate-ibilbidea, are gehiago emakumea izanez gero. Zentzu horretan, gure testuinguruan, ez dira aldatu erabakitzeke egiturak eta prozesuak, kontrakoa baizik.

Generoaren araberako aldeak izaten dira lanbide teknikoetan (mutilek nahiago dituzte) eta gizarte- eta osasun-lanbideetan (neskek nahiago dituzte).

Seme-alabak izatea ez da ezinbestez bete beharreko kontua, belaunaldi honetan sendotu den bizikidetzaren ereduaren.

Euskadiko emakumeen iritziak: joerak hiru urte beranduago. Alderaketa-adierazleak emakumeen beraien artean

Euskal Autonomia Erkidegoko 17 urte eta 64 urte bitarteko hiru emakumeetatik bik iritzi hau bera dute: oraindik ere emakumeak diskriminatuta daude gizarte honetan, nahiz eta aurrera egin den bizitzaren eremu guztietan emakumeak presente egoteko aukera gehiago izateari dagokionez.

Aldi berean, emakume guztiek gauza bera pentsatzen dute: lan-esparruan elkartzeko dira gaur egun emakumeek dituzten desberdintasun-egoera nagusiak. Ez lan baldintza berberak, ez aukera berdinak lanbide-karreraren, ezta soldata berdinak ere: horra enpleguaren esparruan emakumeei zuzenean eragiten dieten hiru faktoreak.

Ondorioak

Egiaztatzen da *emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioa sedimentatuta dagoela* aztertutako belaunaldiaren gehiengo handi batean, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan 2014/15 ikasturtean Batxilergoko 2. mailan zeuden 17 urteko nesken eta mutilen belaunaldiaren gehiengo handi batean.

Alegia, 1998 inguruan jaiotako belaunaldi horretan, aldaketa prozesu bikoitza gertatu da norberaren autonomiari dagokionez: batetik, belaunaldi horren barruan, generoak parekatu egin dira, ez baitute nesken eta mutilen artean generoaren araberako alderik nabaritzen esparru horretan; bestetik, belaunaldi batzuen eta besteen artean, konkista bat egon da, handitu egin da ahalduntze indibiduala, batez ere aurreko emakumeekin alderatzen direnean, hau da, beren amekin eta amonekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko 2. mailako ikasleek –neska zein mutil izan– Aragoiko, Balear Uharteetako edo Kanarietako goi-mailako prestakuntza-ibilbidea aukeratzeko eredu berbera jarraitzen dute, non «gustua» eta «bokazioa» diren hautaketako arrazoi nagusia edo protagonista.

Ildo horretan, esan daiteke Euskadin 17 urteko nesken eta mutilen belaunaldiak norbanako autonomia duela Batxilergoko 2. maila amaitu ondoren erabakia hartzeko orduan, titulu zehatzari buruz dagokionez, eta ez hain beste ibilbideari dagokionez; kasu horretan, neskek gehiago aukeratzen baitute unibertsitate-ibilbidea gurasoen eraginez.

Lan-esparruan dago desberdintasunaren fokurik nagusia. **Lan-esparrua, gainditu gabeko ikasgaia, oraindik.** Hain zuzen ere, *emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioa lan-esparruan gauzatzeko moduan* adierazten dira, paradigmatikoki, aztertutako belaunaldiko nesken eta mutilen arteko alde handienak. Mutilak ez dira lan-arloko oztopoak neskak bezain besteko intentsitateaz antzemateko gauza.

Horregatik, gure testuinguruan, lan-esparruan areagotu behar dira emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko abiatutako estrategiak.

Nolanahi ere, bada hasierako abiapuntu «instituzionalizatua», kultura eta sozializazioko substratu edo oinarri bat, ezinbesteko baldintza dena *emakumeen eta gizonen berdintasunaren balio hori finkatzeko estrategia berriak abian jartzeko, eta ez bakarrik maila norbatiboan, sinbolikoan edo diskurtsiboan, baita eguneroko praktika sozialetan ere, batez ere mutilen artean.*

Paradoxikoki, erretorika –kasu honetan berdintasunari buruzkoa– abiapuntu dugu zeinahi etika eraikitzeko. Jada sedimentatuta dagoena bultzatzen eta bideratzen jarraitu beharra dago. Lortutakoaren nartzisismoan erortzeko arriskua dauka «*Berdintasunaren irudipenak*» .